

noaia

**Euskaraz jakin bai,
baina erabili ez hainbeste**

**Parekidetasunean sakontzeko
konpromisoa berretsi du
Udalak**

**Asteartean hasiko da
Soinurbil XI. Musika Astea**



Ostiral honetan tailerra eskainiko du Sutegiko udal liburutegian

Yolanda Arrietarekin solasean

BOX Alokairua

3 igogailu + erreminta guztiak



Autokarabanak, furgonetak, quads, motorrak eta abar...

Zuk Zeuk konpontzeko tokia eta erremintak

ORDU ERDIA : 10€ Ondorengo minutuak : 0,35€

- 2 ORDUTIK AURRERA DESKONTUA !!

Eta nahi izanez gero laguntza !!

Olio, balazten, eta abar en zerbitzua

GURPILAK PREZIO ONEANI!


 **666 539 269**

Ugaldea Pol. 9 - 4. Nabea - 3. Lokala - 20170 Usurbil



antenas **Telemar**

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com

6855 zenb. telekomunikabide erregistroan

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpiⁿ

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albiste iruditan

Hernanitik Zubietara, errausketaren kontra protesta egitera

Gipuzkoako gizarte errauskailua-ren mehatxuaz ohartarazi nahi izan zuen igande eguerdiz Zubietan bertan haraino Hernanitik bildutako jende talde batek. Goizeko hamarretan Hernaniko plazatik abiatuta, oinez ordu pare bateko ibiliz iritsi ziren hamabi eta erdiotarako Zubietako gainera, Gipuzkoako hondakinentzako azpiegitura nagusiak joan behar duten "Zero Gunera", antolatzaileek bataiatu zuten. Pello Zubiriak bidali digu ondoko kronikatxoa.

"Hernanitik Lasarte-Orian barrena mendiz iritsitako herritarrok bertatik bertara ikusi zituzten Zubietako paraje haietan egindako lur urraketak. Usurbildik iritsitako herritarrek azaldu zizkieten zulo handi hartan errauskailua eta bere instalazioak nola ziren joatekoak, eta orain GHKK bertan TMB, konpost planta eta abarrekin zer eraikitzeko asmoa duten.

Hernanin Zero Zabor taldeko kide batek mintzaldi laburrean gogorarazi zituen 'EAJ/PNV, PSOE, PP... entzun! Errausketarik EZ, ez Zubietan, ez inon!' izenburua.



Bi ordutan osatu zuten Hernani eta Zubietako "Zero Gunerean" arteko bidea.

rekin zabaldutako deialdiaren arrazoiak. Bukaeran oroitarazi zuenez, urte hauetan Gipuzkoak asko egin du aurrera hondakinen kudeaketan eta erakutsi du errausketarik gabeko sistema ez dela utopia, baina alderdi horiek berriro errausketa mahai gainean jarri dutenez 'erne ibiltzea tokatuko zaigu', amaitu zuen.

Ondoren denen artean zuhaitz haziak

erein zituzten, Nendo Dango deitzen diren buztinezko pilotatxoetan bilduak, joan den urtean Usurbilgo naturazaleek zuhaitzak landatutako eremuan eta inguruetan. Zubietako Zero Gunetik alde egin aurretik, bertan bildutakoek hamaitakoa elkarrekin jan zuten, guztien artean partekatuz batzuek eta besteek jateko eta edateko ekarria".

Laburrean

Martxoaren 21ean, EHGAMek antolaturiko afaria

laz bezala, txotx garaiko afaria Usurbilen egingo dute. Prezioa: 24 euro. Sagardotegia eta ekitaldiak deitu dituzten lekuetara joateko autobusa, 32 euroren truke. Ordainketak, martxoaren 10a baino lehen egin behar dira, kontu zenbaki honetan: ES35 3035 0063 82 0630030222.

Imanol Quilez argazkilariaren erakusketa

Once23estudioko argazkilariaren lan bilduma Artzabalen ikusgai, apirilaren 15era arte. Argazkiok ateratzeko behar den denborari erreferentzia egiten dio erakusketaren izenak; "0.176 seg". Bilduma, "txuri-beltzeko 13 argazki osatuta dago".

Bertso-afaria, ostegun honetan Artzabalen

Matrakak Taldekoek eta Usurbilgo Udalak antolaturik, bertso-afaria ostegun honetan Artzabalen, Onintza Enbeita, Amaia Agirre eta Nerea Ibarzabal bertsolariekin. Gai jartzaile, Ane Labaka. Sarrerak aurrez erosi behar dira, Artzabalen, Txiribogan edo Irratin.

noaqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noaqua.com // www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.com

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etzabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Arna-

alde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Maialen Unanue

Nire adinekoak

Lehenik batek behin baino gehiagotan errepikatu izan dit hilabete gutxiko bere alaba argi-argia dela, begiak zabal-zabalik izaten dituela beti: inguruan duen guztia ezagutu nahi duela. Txikiak, pixkanaka, gainontzeko guztiok egin dugun bezala, inguruko informazio guztia xurgatuko du, bere egingo eta errepikatuko. Ikaste-prozesua kontziente izan baino lehenago hasten baita. Haurrak, euren inozentzian, mundu ustez zoriontsu eta baketsu batean bizi dira, errealitateak parez pare lehenengo zaplastekoa jotzen dien arte.

Duela urte batzuk arte pentsatu nahi nuen bikotekideak josten dituztenak adin jakin batetik gorako jendea izaten zela, beste garai batzuetan hezitakoen kontua zela hori. Gure belaunaldia ez zela astakeria hori erreproduzitzeko gai izango. Ez nuen halakorik onartu nahi, baina errealita-

teak zaplasteko bat eman zidan, kendu zidan antifaza. Orduetik behin baino gehiagotan jaso dut zaplasteko bera, bakoitza aurrekoa baino mingarriagoa. Ikusi nahi ez duenaren itsutasuna.

Zutabe hau idazten jarri baino bi minutu lehenago jaso dut azkenea. Zoritxarrez, egun gutxi izaten dira hedabideetan halako albiste-rik irakurri gabe pasatzen direnak. "Gizon bat atxilotu dute bikotekideak jo duela egotzita". Eta, normalean, titularrean baino, azpitiularrean edo gorputzean bilatzen dut datua: erasotzailearen adina.

Albiste horren arabera, nire adinekoa izan da atxilotuetako bat - bat baino gehiago izan dira atxilotuak, leku desberdinetan gertatutako erasoetan -. Datuak ilundu dit gogo. Okerrena da askotan, gehiegitan, oso maiz, atxilotu dituztela 26 urteko gizonezkoak, nire adinekoak, euren bikotekideak erasotzeagatik. Edo gazteagoak.

Muturreko kasuak agertzen dira hedabideetan: erasoak, erahilketak. Baina matxismoa egunerokotasunean daukagu txertatuta. Jarreretan. Iruzkinetan. Eta inork ez dezala pentsa "beste horiek dira matxistak". Nork bereari begiratu behar dio lehenik. Baina, harira: emakumeen aurkako biolentziak arrastoa utzi du gure belaunaldian, eta utziko du, tamalez, datozenetan ere. Horren isla besterik ez dira egunak joan, egunak etorri, albisteetan ikusten ditugunak (ikusten ez ditugun kasuek hartu lezaketan dimentsioak pentsatze hutsak beldurtu egiten nau).

Erasotzaileak ez dira "desbideratutako indibiduoak". Egunez egun emakumeak erailtzen dituztenak ez dira kasu isolatuak. Eta ohiko esalditxoak entzungo dugu, gainera, bizilagunen adierazpenetan: "Normala zirudien". Gizarte matxista batek sortu ditu.

Ez zaitzatela engaina: emakume jaio bazara, ez zara lehen mailako herritarra. Tratu txarrak, muturreko adibide gisa ulertuta, zuzenean jaso ez badituzu ere, sistema oso bat daukazu objektu huts gisa tratatzen zaituena. Eder egon behar duzula dioena, kanon estetiko jakin batean barruan sartu behar duzula dioena. Behin eta berriz errepikatzen duena. Inposatzen duena. Hainbeste, non ilea garbitzeko txanpu zikin batek, bere ezaugarriak idatzita eramateaz gain, erakargarri egoteko ezinbesteko duzula esaten dizula (zutabea idazten ari naizen artean lagun baktek bidali dit adibidea).

Hori guztia biolentzia da. BLO-LEN-TZI-A, hizki larriz. Ez diezaiozun duen garrantziaren alerik kendu. Eta halakoak identifikatu, salatu eta deuseztatzen ez ditugun artean, etorkizuneko gizarte matxista elikatzen jarraituko dugu. Ongi etorriak, Matrakak!

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Ilazki Gainza | Luis Aranalde | Nerea Zinkunegi | **Maialen Unanue** | Idoia Torregarai | Joxe Piñas

Ika-Mika

Urkulluren "sakrilegioa"

Joan den astean gertaera aipagarri bat izan dugu. Lehen aldiz, Gasteizko gobernuko lehendakaria Etxerat elkartereko ordezkari batzuekin bildu da. Berez, bada zerbait nahiz eta horrenbeste urte pasatu behar izan diren bere administraziopean dauden herritar sektore esanguratsu batekin elkartzeko.

Izan ere, 26 urte igaro dira Espainiako gobernuak presoen sakabanaketa abian jarri zuenetik. Ez dugu ahazteko, ez horixe, garai hartan PNV bera lagun izan zuela neurri makialbeliko hori ezartzeko orduan. Urkullurekin egindako bileran hori izan da, hain zuzen, gehien aztertu den gaia. Eta nonbait, aterabide bat emateko lanerako prest omen daude. Hala bedi! Laguntza guztiak, benetakoak badira

behintzat, ongietorriak dira gure senideak Euskal Herriratzeko. Gainera gogo biziz ikusiko gure lehen dispersioaren sustatzaile nagusietakoa izan zen alderdiko agintariak bidegabekeria horretaz jabetu izana eta egiaz Madril eta Paris lehenbailehen bertan behera uztera behartzeko ahaleginera batu izana.

Dispersioaren kontu honekin bada, halere, beste alde bat orain arte ez zutena aintzat hartzen: Gu, senideok zuzenean pairatzen dugun sufrikarioa eta kalteak, alegia. Gure seme-alabak, aita-amak, anai-arrebak, ilobak edo bilobak edota lagunak etxetik hain urrun edukitzeak mota askotariko zama dakar berarekin. Lehenik eta behin afektiboa eta psikologikoa, aste gutzian egonezinean pasatzen baitugu gure

senidea nola egongo den, nola tratatuko duten pentsatuz. Astero ehunka kilometro egin beharrak gure bizimoduak, lana, eskola, harreman sozialak, familia, lagunartea eta zer esanik ez gure poltsikoak ere nola baldintzatzen dituen ez da horren agerikoa. Askok ez dute ezta imajinatzen ere zer suposatzen duen horrek guztiak.

Hori gutxi ez eta, gainera, hainbeste kilometro egin beharrak gure bizia eta osasuna arriskuan jartzen dute sakabanaketa politikak krudel horrekin. Dagoeneko hamasei senide eta lagunak utzi dute bizia errepidean eta dozenaka zauritu izan ditugu espetxeetako joan-etorrietan, horien artean baita usurbildarrak ere.

Horregatik Lakuako gobernuak guri inposatzen zaigun zigor horren bide-

gabekeria aitortzea ez da huskeria. Alabaina, badirudi alderdi eta biktima elkarte batzuentzat gurekin biltzea sakrilegioa dela. Irain bat omen da. Gu ez gara sartuko balorazio antzuetan baina argi utzi nahi dugu gure sufrimendua aitortzeak ez duela besteenaren ukazioa ekartzen. Gatazka luze honetan alde guztietan izan da (eta da) min, samin eta bihozmin. GUTIE-TAN, baita gurean ere. Hori ondo dakigu eta horregatik gu ere gatazka-aren muina eta ondorioak konpontzeko ahaleginean ari gara, sufrimendu guzti-guztiak amaitu daitezzen eta inoiz errepika ez daitezzen. Hori da gure bidea eta Urkullurena ere baldin bada, bidelagun izango gara.

Usurbilen Nahi Ditugu elkarte

Lurraldebus zerbitzu berriak, ekainetik aurrera



2013ko irailean hasi zen garraioaren inguruko partehartze prozesua.

Azken urte eta erdi honetan, inoizko parte hartze prozesu zabalena bideratu du Gipuzkoako Foru Aldundiak, garraio zerbitzu publikoak berri eta indartzeko. 5.000 ekarpen egin dituzte herritarrek. %75 inguru onartu dira. Horren guztiaren emaitza,

martxoaren 1etik Gipuzkoako hainbat eskualdeetan martxan diren Lurraldebus zerbitzu berriak. Buruntzaldera ekainean abiatu dira zerbitzu berriak. "Ekainetik aurrera, ospitaleetarako eta unibertsitate campusetarako loturak hobetuko dira", iragarri dute Aldunditik.

Aldaketak egungo ordutegian

Aurrerantzean oro har, lan egunetan bost minutu atzeratuko dira bus zerbitzuak Usurbildik Donostiarantz. Orduro, eta hamar eta berrogeian igo ahal izango dugu Lurraldebusen bus zerbitzura hiribururantz. Baita Orio aldera joan nahi badugu. Larunbat, igande eta jai egunetan, orain arteko ordutegian mantenduko dira. Orduro eta bostean helduko dira autobusak Usurbila, Donostiara joateko. Eta 25ean, Orio alde-rakoak.

Berrikuntza gehiago; kasu honetan, gaueko zerbitzuetan. Aurrerantzean, larunbatetan soilik ez, ostiral gauetan ere bus zerbitzua izango baita. Usurbildik Donostiara, 22:35 eta 23:35an. Orio aldera, 23:25. 00:25 eta 01:25ean. Larunbat gauetako zerbitzuan, autobusak orduoro izango ditugu Donostiara, 23:35-05:35 artean. Eta Oriora, 23:25-05:25 artean. Hemen ere berrikuntza bat; 23:05ean ere autobus zerbitzua izango da Donostiara eta 23:55ean, Orio aldera.

■ Informazio gehiago: lurraldebus.eus / euskotren.es / 902 543 210

Ika-Mika

Euskaraz bizi nahi dut

Aldarrikapen horrekin bat egiten dudalako Donostian izan nintzen otsailaren 28an. Euskarak mendez-mende jaso duen (eta jasotzen ari den) jipoa salatzerara joan ginen Gipuzkoako hiriburura. Euskararik gabeko euskal herririk ez dagoe-

lako, Euskal Herria, euskara duen lurraldea dela aldarrikatu genuen larunbatean. Aldamenean ditugun bi estatuen jarrera basatia salatzerara joan ginen. Munduko hizkuntzen artean euskara "altxor" bat du(gu) lako larunbateko aldarrikapenarekin bat etorri bertaratu ginen.

Euskaraz hitz egitegatik hainbat belaunaldik jaso duten eta dugun eraso salatzen ginen. Jazarpen guztien gainera XXI. gizaldira iritsi den lurralde honek duen hizkuntzari babesa eta bultzada eman genion Donostian. Euskal Herrian euskaraz bizitzea inongo hizkunt-

zen aurka EZ doalako eta eskubide guztia dugulako, manifestazioaren hasierak zioen "oztopoen gainera euskaraz biziko gara" esaldiarekin bat eginez, eutsi goiari, eta gure herrian EUSKARAZ bizi gaitezen.

Orkatz *

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAik ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: martxoak 13. Idatzia ekartzeko azken eguna: martxoak 9.

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Euskara jakin bai, baina erabili ez hainbeste



Soziolinguistika Klusterrak aditzera eman duenez, etxean nagusiki euskara darabilten herritarren kopurua ia %12 jaitsi da azken hamarkadan.

Euskara gaitasuna ia %80koa da Usurbilen; euskararen erabilera soziala aldiz, %40ra ere ez da iristen. Etxean nagusiki euskara darabilten herritarren kopurua ia %12 jaitsi da azken hamarkadan. Lehen hizkuntza euskara dutenena berriz, %5. Datuok, udalerrri euskaldunei buruz Soziolinguistika Klusterrak egindako azterketan kale-ratu dituzte.

Azken hiru hamarkadetako udalerrri euskaldunen bilakaera aztertu dute. Tartean, Usurbilgoa. Eta ondorio argi batera heldu dira, duela bi aste berri eman genizuen moduan; 1981az geroztik eremu erdaldunak euskalduntzen joan diren artean, euskararen arnagunetzat ditugun udalerrri euskaldunek kontrako bidea hartu dute. Erdalduntzekoa, bereziki azken hamarkada honetan. Eta Usurbil, beste hainbat gune bezala, ez da salbuespena. Honatx zer hausnartua eman dezaketen zenbait datu:

USURBIL

- Euskara gaitasuna: %78,15.
- Euskararen erabilera sozialaren tasa: %36,48.
- Euskara ziurtagiriak dauzkaten establezimenduen indizea: %25,08.
- Euskal Herria aintzat hartzen duten alderdien babes maila: %86,56.
- Euskaldun kopuruaren bilakaera: %10,8ko igoera.
- Lehen hizkuntza euskara dutenen bilakaera: %5 gutxiago.
- Etxean euskara erabiltzen dutenen bilakaera: %9,2 gutxiago.

Hizkuntza gaitasuna, 2011 urtean:

- Hiztunak: 5.859.
- Euskaldunak: 4.086 (%69,7).
- Ia euskaldunak: 986 (%16,8).
- Erdaldunak: 787 (%13,4).
- Euskararen indizea: %78,2.

Hizkuntza gaitasunaren bilakaera:

- 1981: %58,9.
- 1991: %66.
- 2001: %72,3.
- 2011: %69,7.
- 1981-1991: %7,1 gorantz.
- 1991-2001: %6,3 gorantz.
- 2001-2011: %2,6 beherantz.
- 1981-2011: %10,8 gorantz.

Lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak:

- 1986: %59,4.
- 1991: %60.
- 2001: %61.
- 2011: %54,4.
- 1986-1991: %0,6.
- 1991-2001: %0,9.
- 2001-11: %6,5 gutxiago.
- 1986-2011: %5 gutxiago.

Etxean nagusiki euskara darabiltenen ehunekoak:

- 1991: %52.
- 2001: %54,6.
- 2011: %42,8.
- 1991-2001: %2,6.
- 2001-11: %11,8 gutxiago.
- 1981-2011: %9,2 gutxiago.

Usurbilgo bilakaera sozioekonomikoa

Soziolinguistika Klusterrak udalerrri euskaldunen 1981-2011 urte arteko bilakaera soziolinguistikoa plazaratu duen garai berean, Gaindegiak udalerrri euskaldunetako zenbait aldagai sozial eta ekonomikoen bilakaerari buruzko beste azterketa bat aurkeztu du. Zehaztasun guttiak, uema.eus atarian dituzue. Handik hartu ditugu, Usurbili buruz argitaratu dituzten hainbat datu:

Usurbil Demografia (2013)

Biztanleria osoa: 6.111 (2004an, 5.512).

Usurbildik kanpo jaiotako biztanleria:

1991: %55,3.
2001: %55,8.
2011: %56,6.

Espainiar estatutik kanpo jaiotako biztanleria atzerritarra (2013):

Europa: %1,6.
Afrika: %0,4.
Amerika: %2,9.
Asia: %0,4.
Orotara: %5,2.

Belaunaldien bilakaera, 2003-2013:

20-29 urte: %9,8 egin du gora (Hego Euskal Herriko balioen azpitik).
30-39 urte: %16,2 egin du gora.
40-49 urte: %6,4 egin du gora.
50-59 urte: %2,7 gutxiago.
20-59 urte: %7,4 egin du gora.

Lan eta bizi Usurbilen egiten duen biztanleria:

2001: 1036 (%41,4).
2011: 799 (%29,6).



2013an, 6.111 ziren Usurbilen erroldatuak. 2004an, 5.512 (argazkia: Jokin Eizagirre).

Parekidetasunean sakontzeko konpromisoa



Matrakak taldekoekin antolatu dituzten ekitaldietara joateko deia egin du Udalbatzak.

Aho batez onartu zen otsailaren 24ko osoko bilkuran, martxoaren 8ari begira Usurbilgo EHBildutik aurkeztu zuten adierazpen instituzionala. Datorren Emakumeen Egunean, zer ospatu eta zer aldarrikatua badela dio testuak. Zer ospatua, “mugimendu feministarekin batera euskal jendartearen gehiengo baten egindako borrokari esker abortuaren erreforma” gelditzea lortu delako. Baina zer aldarrikatu eta salatua bada oraindik, udal taldeek aurreko astean erabat babestu zuten mozioaren arabera.

Lehen mailako arazoa izan eta Euskal Herrian iaz bost emakume hil zituen indarkeria matxista batetik. Bestalde, “krisialdiaren aitzakian, botere ekonomiko eta politikoak hartzen ari diren erabakiek pertsonen bizitzetan eta bereziki emakumeengan dauzkaten ondorio lazgarriak” salatzen ditu mozioak.

Testuinguru honetan, parekidetasuna sustatu eta “emakume eta gizon askeen

UDALBATZAREN KONPROMISOA

Parekidetasuna sustatu eta “emakume eta gizon askeen Euskal Herria” izateko lanean sakontzeko konpromisoa hartu du

Euskal Herria” izateko lanean sakontzeko konpromisoa hartu du udalbatzak. Hiru lan ildo nabarmentzen dituzte:

- 1. Gure herrian biolentziarik gabeko bizitza bizitzeko eremua izateko bitartekoak jarritz.
- 2. Emakume elkarte eta mugimendu feministarekin elkarlana bultzatuz.
- 3. Gure herriko emakumeak bizitzea merezi duten bizitza duinak izateko politikak garatuz.

Martxoaren 8aren bueltan, Udalak Matrakak Taldekoekin batera antolatu dituzten ekimenetan parte hartzeko gonbita luzatu dute.

Santueneko udal etxebizitza bi salgai

Usurbilgo Udalak enkantera aterako ditu Santuenea auzoan dituen bi etxebizitza. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostetik zenbatzen hasita.

Eskaintzak aurkezteko 20 eguneko epea zuten interesdunek. Interesdunek, bi etxebizitzak ikusteko aukera izango dute, martxoaren 10ean eta 12an, aurrez udaletxera deitu (943 371 951) eta hitzordua eskatuta.

“Oporrak Bakean” kanpaina

Apirilaren 10era arte, zabalik dago Usurbilgo Udaleko Gizarte Zerbitzuetan, “Oporrak Bakean” izeneko proiektuan izen emateko epea. Egitasmo honen bidez, errefuxiatu kanpamentuetan bizi diren 7-12 urte arteko haur sahararrei, udan bi hilabetez, euren egoera gatazkatsutik eta desertuko tenperatura altuetatik urrundu eta “beste errealitate bat ezagutzeko aukera” eman nahi zaie. Informazio gehiago eta izen ematea:

- Gizarte Zerbitzuak, Kale Nagusia 43
- 943 377 110 / gizartelangilea3@usurbil.eus

EH Bilduk deituriko mintegia

Hauteskundeei eta hurrengo legegintzaldiari begirako saioa, larunbat honetan, martxoaren 7an, goizeko 10:00etan Udarregi Ikastolako Erdiko aretoan. Lan taldeak osatuta, hauteskundeetako programan sakondu eta lehentasunak zehaztu nahi dira. Otsailaren 21ean hasitako prozesua, martxoaren 21ean borobilduko dute, 11:00etarako Potxoenean deitu duten herri batzarrean. Hauteskundeetarako herri programa eta zerrendak erabakiko dira saio horretan. Bileretara joan ezin dutenek, informazio gehiago jaso edo ekarpenak egiteko beste bide bat dute; ehbildusurbil@gmail.com

ALKORTA AUTOZERBITZUA

Baserriko haragia

·Frutak ·Barazkiak ·Etxeko produktuak ·Izoztuak

Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Oztopoen gainetik, euskara sustatzen jarraitzeko asmo irmoa



Milaka lagun izan ziren Kontseiluak deitutako manifestazioan, Donostian (argazkia: kontseilua.eus).

Euskararen inguruko mozioa aurkeztu zuten Usurbilgo EHBildu, Hamaikabat eta EAJ-PNV udal taldeek, otsailaren 24ko osoko bilkuran. Aho batez onarturiko testuak, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkari Carlos Urquijok udalen jardunean eta euskara sustatzeko neurrien aurka izandako esku hartzea salatzen du.

Kontratazioetako, diru-laguntzatarako edota udalak euskalduntzeko adostutako hizkuntza irizpideak edota aktak euskaraz bidaltzea susmopean jarri dituela dio testuak. UEMA-n sartzeko bi udalek hartutako erabakiaren aurka ere egin duela aipatu ordezkariak. Mozioaren arabera, "euskararen ofizialtasuna bera ari dira zalantzan jartzen".

Larritzat jo duten egoera honen aurrean, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariaren figura eta lana bertan behera uztea eskatu zuen udalbatzak. Eta babesa eskatu zioten Eusko Jaurlaritzari. Euskara sustatzeko aha-

MOZIOA, AHOBATEZ ONARTUA

"Euskararen arnasmuneak indartzeko, politika eraginkorrak abian jartzen saiatuko gara; politika orokorraren erdigunean kokatzen saiatuz"

leginean eta eragile zein erakundeekin elkarlanean jarraitzeko konpromisoa berresten du Usurbilgo Udalak. "Euskararen arnasmuneak indartzeko, politika eraginkorrak abian jartzen saiatuko gara; hizkuntza politika euskara sailetik harago eramán, eta euskararen arnasmuneak duten garrantzia aintzat hartuta, politika orokorraren erdigunean kokatzen saiatuz", iragartzen du mozioak.

Gainera, Kontseiluak deituta, oztopoen gainetik euskaraz bizitzea eskatzeko larunbatean Donostian egin zen manifestazioarekin bat egin eta herritarrek aipatu mobilizazioan parte hartzea deitzen zituen.

Urek gainezka berriz

Hilabeteko tartean hirugarren denboralea, bigarrena euriteengatik. Eskualdeko beste zonalde batzuetan kalte askoz handiagoak eragin zituen arren, aurreko asteko euriteek Oria ere bere bidetik aterarazi zuten. Txiki-ierdi-Zubieta ingurua izan zen kaltetuena. Lur jauzi batek N-634 errepidea itxiarazi zuen otsailaren 26an. Trafikoa eten zuen lurjauziaren parean, Txiki-ierdi-Zubietara doan bidea ere itxita zen, zati bat urpean geratu baitzen, errioak gainezka egin ostean. Ostegunean zehar, egoera bere onera etorri zen pixkanaka. N-634 errepideko errail bat goizean bertan ireki zuten, bestea bazkalostean. Goiz berean ireki zuten baita Txiki-ierdi-Zubietara zihoan bidea, bezperan gainezka egin zuen errioaren beharago zetorren eta. Gainerakoan duela hilabeteko euriteen argazki bera. Errioaren bidetik aterata, Zubieta, Usurbil eta Aginaga parean. Oriatik gertuen diren lursailak urak harrapatu zituen.



N634 errepidea itxita egon zen otsailaren 26an.

Tipi-Tapako zenbaki sarituak

Martxoaren 1ean, igandean, ospatu zen barazkidun pintxo festa amaieran Txiribogan eginiko zozketan, 150 euroko erosketa balea 1.029 zenbadun txartelari egokitu zitzaion. Bi lagunentzako afaria aldiz, 3.737 zenbakidunari. Sarituek Txiriboga tabernatik pasatzeko deia egin dute Hurbilago Elkartetik.

MIEL AKADEMIA

Talde murriztuak eta pertsonalizatuak

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa · Selektibitateak
- Lanbide heziketa
- Ikasketa teknikoak · Hizkuntzak

629944690

Galtzaragaña 1, behea USURBIL

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak

943 37 10 42

Zubiaurrenea 5

LABE-GOXO
Okindegia-Gozotegia

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

Datorren astean hasiko da XI. Soinurbil Musika Astea

Zumarte Musika Eskolak, Usurbilgo Udalarekin elkarlanean josia du, XI. Soinurbil Musika Asteako egitaraua. 2015eko edizioak, Elgoibarko Musika Eskola eta Legazpiko Musika Banda dakartza gonbidatu dituzte, Elizako organoa ezagutzeko aukera izango da, eta bi emanaldi. Bat frontoian; Reunion Big-Band Taldea. Eta Musika Asteari hasiera emango dion kontzertu pedagogikoa azkenik, Sutegin; Mac Jeara's Band. Hitzordu honetarako sarrerak aurrez eskuratu beharko dira, Zumarte Musika Eskolan. Argibide gehiago eta XI. Soinurbileko egitarau osoa, segidan:



Martxoaren 10ean kontzertu pedagogikoa eskainiko du Mac Jeara's Band taldeak.

Martxoak 10, asteartea

■ 18:30 Mac Jeara's Band kontzertu pedagogikoa Sutegin.

Sarrerak: aldeaz aurretik, 2 eurotan Zumarten (astearte, ostegun eta ostiraletan 18:00etatik 19:30era). Egunean bertan 4 euro.

Zehaztasunak: "Haurrentzako ikuskizun aproposa dugu hau. Zenbat Coca Cola litro sartzen dira tuban? Zuen taldean ez al du inork Play Stationa jotzen? Estilo honetako galdera "didaktikoak" erantzun ondoren, harritura geratuko zarete gure protagonista txikiak eszenatikira igo eta Jazztasunez beteriko musika-tresnak hartzen

dituztenean: inprobisazioaren benetako jenoak direla ikusiko duzue".

Martxoak 11, asteazkena

■ 18:00/19:00 Organoaren erakustaldia Salvatore Elizan. Sarrera: doan.

Zehaztasunak: "Usurbilgo Organoa berezia da. 1907an Parisen eraiki zen. Cavaillé-Coll lantegietan. Joan Luis Atxegaren eskutik Usurbilgo organoa gertutik ikusteko aukera paregabea izango dugu".

Martxoak 12, osteguna

■ 19:00 Elgoibarko Musika Eskolarekin trukaketa Sutegin.

Zehaztasunak: "Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleak Usurbilen izango ditugu, bertan ikasitakoaren emaitza erakutsiz".

Martxoak 13, ostirala

■ 20:00 Reunion Big-Band Taldea frontoian.

Zehaztasunak: "Reunion Big Band Europako hainbat tokitatik etorritako eta Euskal Herriko Goi-Mailako Musika ikastegian (Musikene) ikasitako hogeitabi musikari gaztek osatutako jazzeko formazio handi bat da. Swing tradizionaletik hasi eta egungo jazzeko joera berrietara ar-

teko errepertorioa landu dute, musika latino eta funka ahaztu gabe".

Martxoak 15, igandea

Legazpiko Musika Banda

■ 11:30 Kalejira.

■ 12:30 Emanaldia frontoian. Zehaztasunak: "Legazpiko herrian ez ezik, gure artean oso ezagunak diren beste ekitaldietan ere parte hartu izan du Legazpiko Musika Bandak. Usurbilen zuzenean entzuteko aukera izango dugu".

Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola eta Usurbilgo Udala.

**ARRANDEGIA
PELLO**
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

**TXAPELDUN
TABERNA**
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna Iurra 2, 943 11 82 53

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

ETXETRESNEN KONPONKETAK
Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK
645417665
XABIER
Usurbil

Yolanda Arrieta: “Historiak ez

Bizenta Mogel Elgezabal (1782-1854) idazle bizkaitarrean pentsatuz idatzi zuen *Argiaren alaba* (2014) nobela. Liburua egin aurretik ordea, XVIII. mendeko idazle klasiko honen inguruko tailerrak eskaintzen hasi zen. Eta tailerraren harrera onak bultzatuta idatzi zuen gero nobela. Ostiral honetan, Sute-giko udal liburutegian izango da Yolanda Arrieta. Tailerra 19:00etan hasiko da.

NOAUA! Zenbat du nobelak biografiatik eta zenbat fikziotik?

Yolanda Arrieta. Nik ez nuen liburua idazteko asmorik. Liburua idatzi baino lehen, hitzaldi-tailerrak ematen hasi nintzen. Hortik hasi zen dena.

Euskal Idazleen Elkarteak, ‘Idazleakaz’ proiektuaren barruan, Edorta Jimenezen egitasmo bat jarri zuen martxan. Gaur egungo Bizkaiko idazle batek eskualdeko idazle klasiko bat geletara hurbiltzeko plana proposatu zuen Jimenezek. Ni Usurbilen bizi naiz baina Etxebarriakoa naiz eta neu ere animatu nintzen. Markinan Jose Antonio Mogel ere hor dago, baina idazle klasiko hori jada eгина dago eta Bizenta Mogelen hasi nintzen pen-



Matrakak Taldeak eta Udalak antolatu dituzten ekitaldien barruan kokatzen da Yolanda Arrietak Sute-gin eskainiko duen tailerra.

YOLANDA ARRIETA

“Helburua zen historiari estatikotasun hori kentzea, eta dinamizatzea. Gu ere historia gara eta ari gara historia egiten”

tsatzen.

Ez nekien oso ondo zer

egin ordea. Mari Eli Ituarte-
tek IRALEn egiten du lan eta zerbait ezberdina egiteko proposatu zidan. Markinako liburuzainak jada egiten zuela Bizenta Mogelen inguruko ibilbide bat, eta “zer edozer ezberdina egin ezazu”, hala proposatu zidan Ituarte, eta horrela hasi nintzen, hitzaldi tailer modukoa egiten.

Tailerraren bitartez ematen duzu ezagutzera Bizenta Mogelen ekarpena.

Hamaika pakete edo kutxa erabiltzen ditut tailerlean. Kutxa bakoitzean objektu esanguratsuak sartzen ditut, eta gutun-azal batean datuak, Bizenta Mogeli buruzko datuak. Paketeak edo kutxak zabaldu ahala, Bizenta Mogelengana hurbiltzeko hamar ikurrak deskubritzen goaz.

XVIII. mendera hurbiltzeko gakoak izango dira ikurrak, ezta?

Ikurra da geratzen zaigun arrastoa. Iragana joan da, ezin duzu atzeman. Tailer honen bitartez, tradizioaren inguruko irakurketa bat egiten dugu. Tradizioa ez da geldi dagoen gauza bat. Historia ez da hor geldi dagoen gauza bat. Zerbait bizia da. Gaur egunetik berrikusi, hutsuneak bete eta berrasmatzeko eta berrantolatze modukoa. Horren ildotik hasi nintzen ikertzen, eta iker-tu ahala hasi nintzen datuak topatzen, eta topatzen nituen datu horiek kutxa horietan sartzen. Helburua zen historiari estatikotasun hori kendu, eta dinamizatu. Gu ere historia gara eta ari gara (historia) egiten.

“Ez nuen heroi bat bilatzen”

NOAUA! Aukeran, beste idazle bat aukera zitekeen, zergatik Bizenta Mogel?

Yolanda Arrieta. Bizkaiko idazle bat hautatu behar nuen, hori zen abiapuntua. Ni Etxebarriakoa naiz eta Bizenta Mogel Markinakoa, eta kilometro gutxira dago Etxabarria. *Ipuin onac* liburuaren hitzaurrean, agertzen du 8-9 urterekin, osabak bere nebari

latinera erakusten ziola. Baina Bizentak ere esaten zion osabari berak ere ikasi nahi zuela latinera irakurtzen.

Irudi bat neukan: 1790ean, Markinako Goenkaleko etxe batean, neska koxkor bat dago latina ikasten.

Dokumentazio lan handia eskatuko zizun tailer honek. Eta ondoren idatzitako nobelak.

Historikoki gertaera asko eman ziren garai horretan. Frantziar Iraultza hasten da, gerra napoleonikoak datoz... Bizentaren bizitzak Lehen Karlistaldiaren aurreko mugimendu sozial guztia harrapatzen du.

Topiko asko daude Bizenta Mogelen inguruan. Oso katalikoa zela, itxia zela... Baina sasoia ere horrelakoa zen.

Eta andrazkoa zen Bizenta Mogel.

Bai. Baina nik ez nuen heroi bat bilatzen, nik imajinarazi nahi nuen sasoi hartan, XVIII. mende amaieran, bazela neska koxkor bat ikasi egin nahi zuena. Eta nahi hori aldarrikatu egin zuela gainera. Zeharka. Emakume batentzat, garai hura ez zelako aktibo izateko modukoa.

du zertan itxia izan behar”

Mirari 17 urteko euskaldun amerikarra da liburu protagonista, garaikidea. Bi garaien arteko zubi-lana egiten du Mirarik.

Yolanda Arrieta. Zalantza asko izan nituen. Iragana hutsean uzteak ez zidan asebetetzen. Zeren hau ez zen nobela historiko bat. Ideia zen liburua eskola eta hezkuntzara bideratzea, eta nire kezka handiena zen nola hurbildu gazteei idazle klasiko bat.

Gaur egungo gazte bat hautatu nuen protagonista gisa. Jatorri euskalduna duena baina amerikarra. Eta talentu handikoa, Bizena Mogel ere adimen handiko emakumea izan baitzen, aurreratua. Bizentak ere bere liburua 18 urterekin idatzia zuenez, liburuko protagonistak ere antzeko adina du.

Bere sasoirako aurreratu samarra izango zen Bizenta. Bera bizkorregi zihonan bere sasoirako eta hori islatu nahi nuen.

Zabaldtu egin nahi zenuen pers-



Bizenta Mogel idazle klasikoan oinarritzen da *Argiaren Alaba* nobela.

“Bere sasoirako aurreratu samarra izango zen Bizenta Mogel. Bera bizkorregi zihonan bere sasoirako eta hori islatu nahi nuen”

pektiba.

Gaur egungo gazte baten ikuspegitik idatzi nahi nuen. 17-18

urteko gazte batentzat, denbora-espazioaren perspektiba aldatu egin da. Ez dute bertigorik. Hori ere islatu nahi nuen. Nola egin? Hemengo jatorria duen euskaldun amerikar baten bitartez. Adimen handikoa den neska gazte baten bitartez. Bertigorik ez dute gazteek, baina lurra fala zaie. Asko ikasi dut, Ameriketara dena daukat, gauza asko ditut... baina ni nor

naiz? Nondik nator? Adinarekin bat datozen kezkek.

Oinarri hori falta zaiela akaso.

Hori da, oinarri hori falta zaie. Hori islatu nahi nuen. Izeba bat du Mirarik, ikerlaria, nomada. Beste emakume irudi bat agertu nahi nuen, ikerlaria-rena. Bien artean ikertu ahala doaz nobela osatzen.

Horrekin islatu nahi nuen lehen aipatu dizudana, eta tailerrean erabiltzen dudana planteamendua: gauzak ez daude jada esanda, eh? Esanda dagoena ere, berriro begiratzen duzu, eta gure ondorengoei ere berriro begiratuko dituzte. Iragana joan da, eta arrastoei zabilta. Datuak hor daude baina ikertu egin behar duzu, hori ere egia da.

Historiak ez duela zertan harritzkoa izan behar.

Eta kategorikoa ere ez, eta itxia ere ez. Horrek esan nahi du egia absolutorik ez dagoela.

Dagoeneko hogeitailer eskaini ditu han eta hemen

NOAUA! Liburua baino lehen hasi zinen tailerra eskaintzen. Zenbat egin dituzu orain arte?

Yolanda Arrieta. Dagoeneko hogeitailer bat egin ditut. Eta oso gustura ari naiz.

Nolakoa izango da Sutegin eskainiko duzun saioa?

Tailerra hasi aurretik, kutzak lurrean egoten dira, borobilean ipiniak. Hamaika kutxa, guztira. Dekalogo moduko bat osatzen dugu. Joko gisa planteatzen dut. Zero da abiapuntua eta “demagun” gisako batekin hasten gara.

Jendea kutxen inguruan dago eserleketan jezarrita, mahairik gabe, eskuko tele-



Duela gutxi, Bilbo Zaharra euskaltegiko ikasleekin egin du tailer hau.

fonorik gabe, harkatzik gabe, paperik gabe. Esku hutsik. Norbera entzuteko, imaginatzeko eta sentitzeko prest.

Kutzak zabaltzen joango

gara eta, amaieran, kutxetan dauden gauza guztiak agerian geratuko dira. Eta nik ondoren, paper batean dekalogo modukoa banatzen diet taile-

rreko partehartzaileei.

Zer dago hamaika kutxa horien barruan?

Kutxetan objektuak sartzen ditut. Metaforetara hurbiltzeko. Gazteek ez dituzte gure metaforak ulertzen. Klasikoengana hurbiltzeko garaian, metaforen atzean pentsaera sinboliko bat dago, filosofiko eta erlijioso bat. Eta objektuek lagundu egiten diete horretan. Era hone-tan, diskurtso sinbolikora hurbiltzeko aukera daukat, modu organiko batean. Oso ondo ateratzen da tailerra, asko disfrutatzen dut. Neke gozo bat eragiten dit baina atsegina da neke gozoa.

26. Lilatoiak Gattunk taldea saritu du

Ezin arrakastatsuago suertatu da, martxoaren lehen Donostian ospatu zen XXVI. Lilatoian, #Kilometroak15 ekimenaren alde osaturiko Gattunk taldeak izandako parte hartzea. Herriko 40 emakume animatu ziren, Gattunk-eko kamisetekin partekidetasunaren aldeko lasterketara. Eta gainera, Lilatoi amaieran, taldea saritu zuten. Zorionak!

#Kilometroak15 ekimenaren alde herritar talde batek jarritako Gattunk postura ere gerturatzeko aukera izan zuten lasterkari eta ikusleek. Jai eta aldarrikapen giroan, Lilatoian parte hartu zuten ia 4.000 emakumeren artean, usurbildarrok irten ziren Gattunk taldearekin:

Josune Estella Arranz
Ainara Uribe Navarro
Nahia Aranburu Eneterriaga
Aizkorri Aranburu Eneterriaga
Idoia Kaperotxipi Arruti
Arantza Esnaola Hernaiz
Virginia Herrera Gomez



40 lagun irten ziren Gattunk kamiseta soinean jantzita.

Leire Diaz Ventura
Eneritz Agirre Urdangarin
Ana Anton
Marimar Lizaso
Kizkitza Ameztoi
Olatz Altuna Zumeta
Aitziber Eizagirre Zaldúa
Irene Illarramendi Unanue
Olatz Zuloaga Segurola
Bakartxo Irazusta Aramendi
Josune Iparragirre Tolaretxipi
Oihana Aguaron

Alazne Kastresana
Nagore Maiz
Gema Molina
Ana Mediavilla
Idoia Amas
Larraitx Izagirre
Iratxe Begiristain Otegi
Mari Mar Martin Carpio
Arbil Jauregi Agirre
Elhuiar Urdanpilleta
Ana Urdangarin Salsamendi
Maitane Izagirre Bruño

M. Aranzazu Ezeiza Iruretagoiena
Elisabet Aperribai Basterretxea
Ainhoa Merino
Amaia Kaperotxipi Arruti
Jaione Bereziartua Errazti
Ainhoa Bereziartua
Agurtzane Alkorta
Usoa Diaz Ventura
Garazi Lizaso
Loli Elkano Irurtia
(Iratxe Begiristainen partez atera zen).

Dantzan jarri zuten Sutegiko auditorioa

Kilometroak15 ekimenaren aldeko emanaldi eskusiboa eskaintzera itzuli zen Tapia eta Leturia Taldea, larunbatean Sutegiko oholta gainera. Bat ez, sarreren salmentak izandako arrakastarekin bi emanaldi eskaini zituzten kultur etxean. Dantza batean jarri zuten auditorioa.

Batzordeetan laguntzeko deia

Ehunka herritarrek emana dute izena, baina jende gehiagoren laguntza behar da: ekonomia eta arropa salmentan,



Tapia eta Leturia Taldeak bi saio eskaini zituzten #Kilometroak15 egunaren alde.

osasun eta prebentzio batzordean, edo txosna batzordean

esaterako. Denetarikoz bat lan talde badira. Izen ema-

teko: udarregi.com edo 943 36 12 16.

Erabakitze eskubidea ehuntzera



Erabakitze eskubidearen aldeko sarea herritar gehiagoren babesarekin ehuntzen joan nahiko lukete.

Euskaldunon erabakitze eskubidearen alde indarrak metatzen jarraitu nahi du 2015ean, Gure Esku Dago mugimenduak. Euskaldunon erabakitze eskubidearen inguruan herritarren sare bat osatzen ari da. Sare hori herritar gehiagoren babesarekin handitzen, ehuntzen joan nahi lukete 2015erako programatu dituzten ekintzekin. Nazio mailako erronka bat antolatzen ari dira ekainaren 20rako.

Iaz 150.000 lagun bildu zituzten Durango Iruñearekin lotu zuen giza-katean. Oraingoan jende gehiago batu nahi dute. Ekainaren 20an, herrialdez herrialde, hiriburuetan erabakitze eskubidearen aldeko ekitaldi bana egingo da. "Hautesontzi erraldoiak irudikatuko dira. Hautesontziok oihal zati ezberdinekin osatuko dira. Herri bakoitzean oihal zati batzuk ditugu, hautesontziak osatzeko erabiliko direnak. Herritar bakoitzak bere atxikimendua oihal zati horretan islatuko du; marrazki, poema, sinadura... bidez. Tela ezberdinak josiz, jende ezberdinen arteko ehuntzea irudikatu nahi da, hautesontzi bat osatzeko, erabakitze eskubide hori gau-

GURE ESKU DAGO

"Ehuntze Eguna maiatzaren 9an egingo da Usurbilen. "Ekainekoa prestatzeko mugarrria izango da herrian. Giroa berotzeko festa egun bat"

zatzeko. Gaur ehundu, bihar erabaki", Gure Esku Dago taldekoen esanetan.

Ekainak 20, Donostia

Lasarte-Usurbil artean gutxienez 3.000 lagun bildu nahi dituzte. 1.500, Usurbilen. Uhartea-Arakilera joandako 911 lagun markaren ezin hobe hautsi nahi da beraz. "Ekainaren 20an jendeari Donostiako ekitaldira babesa ematera joateko, lehenagotik egin behar ditugu etxeko lanak", diote Usurbilgo Gure Esku Dago taldetik. Nazio mailako hitzordua, herriz herri bideratu nahi du erabakitze eskubidearen aldeko mugimenduak. Aurreko ostiralean Potxoenean 2015erako ekintza plana aurkeztu zutenetik, martxan dute iaz giza-katearekin egin bezala, ekainaren 20ra arte luzatuko duten kanpaina. Datozen

hiru hilabeteotan, herritarren atxikimenduak bildu nahi dituzte.

Tutore beharrean

Kalera irtengo dira berriz Gure Esku Dago taldekoak, noiznahi ikusiko ditugu izen emate mahaia jarrita dutela. "Txartel bat bete beharko da. Euro bat eskatuko da, gastuei aurre egiteko", diote Usurbilgo lan taldetik. Eragile ezberdinengana ere jotzeko asmoa dute, datozen erronken berri ematera. Atxikimenduak jasotzeko bideak ugaritu nahi izan dituzte aurretik, eta horretarako, figura berri bat sortu dute; tutorearena. "Orain arte iritsi ez garen jendearengana heltzeko modua izan daiteke. Jendea tutore bezala parte hartzea animatu nahi dugu", diote Gure Esku Dagotik. Tutorearen zeregina; bere inguruan ekainaren 20ko erronkarako jendea biltzea. "Oihal zati bakoitza 20 pertsonentzako da. Tutore hauek oihal baten ardura hartuko lukete", gaineratu dute.

Martxan dute kanpainako lehen azalpenak dira hauek. Datozen hilabete hauetan zehaztasun gehiagoren berri ematen joango dira Gure Esku Dago taldekoak.

Ehuntze Eguna, eta bezperakoak

Ekainaren 20ko hitzorduaren aurretik, erabakitze eskubideari buruz, gai sakontzeko hitzaldia antolatu du Usurbilgo Gure Esku Dago taldeak, martxoaren 27rako. "Gure Esku Dago dinamika erabakitze eskubidearen inguruan indarrak batzen jarraitzeaz gain, eztabaidan ere sakondu nahi du, erabakitze eskubidea gauzatuko dugun egunera begira hainbat kontu erabaki behar baita (zer galdetu, non, nork, etab.). Askotan izan daiteke herritarren aurrean ematea soilik indarrak batzen ari garela, baina beste bide horri ere ekin nahi zaio, eta maila batean egiten ari da. Hitzaldia testuinguru honetan antolatzen da", Gure Esku Dago taldekoen esanetan.

Eta ekaineko ekitaldi erraldoia girotzeko Ehuntze Eguna maiatzaren 9an Usurbilen. "Ekainekoa prestatzeko mugarrria izango da herrian. Giroa berotzeko festa egun bat", antolatzaileek diote. Datozen ekitaldien agenda hemen:

Martxoak 27, ostirala

■ 19:00 Hitzaldia Sutegin: "Erabakitze eskubidea". Hizlariak: Zelai Nikolas eta Gaizka Aranguren. Moderatzailea: Pello Zubiria.

Maiatzak 9, larunbata

■ Ehuntze Eguna Usurbilen.

Ekainak 20, larunbata

■ Erabakitze eskubidearen aldeko ekitaldiak hiriburuetan. Gipuzkoa mailakoa, Donostian.

Taldearekin hartu emanetan jartzeko:

■ Ostiralero bilera irekia egiten dute, 18:30ean Potxoenean. usurbilgureeskudago@gmail.com

Errifa zozketa

Gure Esku Dago mugimenduak aurrerantzean jarriko duen mahaian, edota mugimenduko ki-deek ere salgai izango dituzte errifak, 2,5 eurotan. Errifak erosteko beste bide bat, usurbilgureeskudago@gmail.com

Martxoaren 8an, emakume baserritarrari gorazarre

Landa eremuko emakumeek merezitako omenaldia jasoko dute, martxoaren 8 honetan. Urteetan isilean egin duten lana, izan duten bizimodua bistaratu eta ezagutzera emango du, egun ezin aproposagoan, igandean 18:00etan Sutegin estreinatuko den "Lurra, lana, izana. Usurbilgo emakume baserritarren ahotsak" dokumentalak. Ikus-entzunezkoa grabatzen, Leire Urkidi eta Maitane Arnaiz gasteiztarrek aritu dira, Usurbilgo Udalak gai hau lantzeko duela bi urte egin zuen beka deialdiko irabazleak. Dokumentala grabatzeaz gain, ikerketa lan bat ere osatu dute. Maitanek eman dizkio aldizkari honi, egindako lanaren inguruko zehaztasun gehiagoren berri.

Usurbilgo emakume baserritarren inguruan, zer da aztertu duzuna?

Maitane Arnaiz: Hasiera hasieratik Usurbilgo emakume baserritarren inguruko lana egin behar genuela argi geneukan, baina ikuspegiaren inguruko zalantzak izan genituen. Lehenik eta behin, ekoizpenaren haririk jotzea izan zen gure lehenengo ideia. Baina ondoren konturatu ginen, horrek berriro ere emakumeak bigarren mailan agertuko zituela, eraitsi nahi dugun ikusezintasuna indartu, alegia. Euskal baserrietako ekoizpen lanetan emakumeek lan eta ekarpen handiak egin dituzten arren, protagonismorik handiena gizonen lanak bereganatu baitu. Horrenbestez, emakumeek egin dituzten lanei erreparatzeari ekin genion eta elkarrizketekin hasi berrikan emakumeek zenbat lan uztartu, kudeatu eta antolatu behar izan dituzten ikusteak harritu gintuen. Baserriak eskatzen dituen ekoizpen lanak, dirua ekartzen dutenak ez ezik, baita auto-hornikuntzari dagozkionak ere. Bestetik, ezin aipatu gabe utzi zaintza-lanak, etxeko txikien zaintza eta hezkuntza, baina baita zahar eta gaixoen zaintza ere. Horietan guztietan, amak ez ezik, etxeko gainontzeko emakumeak ere jardun dira: amonak, izebak, ahizpa nagusiak, auzokideak,...Era berean, badira etxetik kanpo beste pertso-



2013an hasi ziren egitasmo hau gauzatzen, Udaletxearen babesarekin.

MAITANE ARNAIZ

“Baserriaren inguruko denetarikoa iritzi eta balorazioak jaso ditugun arren; guzti-guztiek aipatu dute baserriko lanaren eta bizimoduaren gogortasuna, etengabeko lana”

na batzuk zaintzera joan behar izan dutenak. Horretaz gainera, etxeko mantenimendu lanak, auzokideekiko harremanak eta etxera zetozen bisitak artatzea aipatu ditzakegu. Miresgarriena, horiek guztiak nola gobernatu dituzten, leku guztietara heldu eta dena prest egon zedin. Eta gaur egun ere hala egiten jarraitzen dute.

Baserriko lanak generoaren araberak nola banatzen diren ere aztertu dugu. Argi dago baserrian, beste edonon bezala (horretan ez baita berezia euskal baserria), emakume ala gizon izan, egokitzen diren lanak ez direla berdinak.

Horretaz gain, bere kokapen, neurri eta ezaugarriengatik Usurbilek eta bertako auzunek herri gisa dituzten berezitasunak jaso nahi izan ditugu. Eta horrek era berean bertako baserritarren bizimodu eta jardunean nola eragin duen. Ikuspegi historikoari ere heldu diogu eta baserrietan eta baserritarren bizimoduan zelako bilakaera gertatu den aztertu dugu: aisialdia, elikadura, lanbideak, ohiturak, baloreak,...

Laburbiltzeko, Usurbilgo baserriaren izaera eta baserritarren bizimodua jaso nahi izan dugu emakumeen hitzetan.

Zer nolako ahotsak bildu dituzue?

Zaila da zer nolako ahotsak bildu ditugun esatea, oso anitzak eta elkarren artean ezberdinak izan baitira jasotakoak. Maiz arazo bertsuei aurre egin behar izan badiete ere, nork bere garaia bizi izan du, bere etxea, bere familia, nork bere historia dauka eta nork bere bidea urratu behar izan du. Elkarrizketetan jaso ditugun esanak, gainera, oro har ez dute elkarren antzekotasunik izan. Eta hein handi batean hori zen bilatzen genuena, elkarrizketa irekiak, non gure galderak emakumeek kontatzeko zeukatena azaleratzeko bide emango zuten. Igandean ikusi ahal izango den dokumentala, honen guztiaren lagin txiki bat baino ez da izango, mokadutxo bat. Ezinezkoa baita, elkarrizketetan jasotako guztia dokumental labor batean biltzea. Baina espero dugu igandeko emanaldia liburuarekiko interesaren pizgarri izatea.

Nolakoak dira Usurbilgo emakume baserritarrek?

Esan bezala, ez da erraza Usurbilgo emakume baserritarren izaera bilduko dituen hitza aurkitzea. Anitzak direla diogu; batetik, hainbat belaunalditako emakumeak ezagutzeko aukera izan dugulako; bestetik, herri bat bera izan arren, auzo batean

ala bestean bizi, ezberdintasunak badirelako: ohiturak, lekuak, elkar-teak, jendarteko hartu emanak edota baserriko jarduna bera.

Baina faktore horietaz gain, pertsonalek ere eragiten dute. Usurbilgo baserrietan ez dago berdinak diren bi emakume eta ama-alabak edota ahizpak ere elkarrizketatu ditugu; beraz, atera kontuak! Kontakizunei dagokienean ere; nork bere galbahetik azaldu dizkigu haurtzaro eta gaztaroko oroitzapenak; nork bere bizipenetatik abiatuta deskribatu digu baserria; eta nork bere ikuspuntuaren arabera azpimarratu dizkigu baserriko bizimoduaren alderdi batzuk ala besteak. Batzuek baserrian bizi zuten gogortasuna aipatu digute; beste batzuek emakumeek jasan behar izan dituzten injustiziak salatu; beste hainbatek goxotasunez begiratu diote baserriari; eta beste batzuek, aldiz, malenkoniatsu bizi estilo horren gainbehera hurbil sumatzeagatik.

Zaila den arren, Usurbilgo emakumeak nolakoak diren esatera ausartuko banintz, oso kementsuak direla esango nuke.

“Lurra, lana, izana”, ikusezin dena azalerazi nahi duen dokumentala Zer ekarpen egin nahi dio herriari, grabatu duzuen dokumentalak eta egin duzuen azterlanak?

Gure historiaren kontakizunari eta egungo jendartearen iruditeriari egin nahi dio ekarpena. Ikusezin (izan) dena azalarazi nahi du eta errealitatearen ikuspuntu beteagoa eman.

Martxoaren 8an estreinaldia. Zergatik ez dugu galdu behar? Herriko emakumei omenaldia izango delako.

Dokumentalaren estreinaldira joan ezin duenak, gero dokumentala eskuratu edo ikusteko aukera izango du?

Bai. Udalak DVDak eta liburuak argitaratuko ditu.

Igande honetan, Gorriti-Tolosa irteera

Aurreko asteetan iragarri dugun moduan, Andatza Mendizale Elkartekoek antolatu dute mendi martxa eta goizeko 7:30ean abiatuko dira Oiardo Kiroldegitik. 19 kilometrotako ibilbidea osatuko dute, Ulizar menditik, Gaztelu eta Leaburutik barrena. Tolosatik gero, autobusez Usurbila. Izena aldeztu aurretik eman behar zen.



Goizeko 7:30ean abiatuko dira Oiardo Kiroldegitik.

Santoñara, senior taldea animatzera joateko aukera

1. nazional mailako eskubaloitako taldeak, Santoñan (Kantabria) jokatu du asteburuko jardunaldia. Neurketa, martxoaren 7an, 18:30ean. Hara joateko autobus zerbitzua antolatu du Usurbil KEk. Autobusa egun berean, 15:00etan irteerako da Usurbildik. Itzulera, partida amaitu ostean. Izen emateko: 627 271 215 (Montse) edo usurbilke@gmail.com. Prezioak; Usurbil KEko bazkideek eta 16 urtetik beherakoek doan. Bazkide ez direnek, 5 euro.

Alebin eta infantil mailako bizikleta lasterketa

Eskola Kirolean parte hartzen ari diren alebin eta infantil mailako txirrindularien lasterketa antolatu du Buruntzazpi Txirrindulari taldeak. Martxoaren 14an egingo da lasterketa eta arratsaldeko 16:30ean abiatuko dira, Artzabal pareretik.

Zubiaurrenea, Kalezar eta Puntapax inguruak zeharkatuko dituzte. "Etorri zaitezte ikusi eta animatzera!", antolatzaileen gonbita herritarrei.

Eskubaloi partidak

Martxoak 7, larunbata

09:30 Alebin mutilak: Udarregi 5B-Langile A
09:30 Alebin mutilak: Udarregi 5A-Urnieta 5A
10:30 Alebin mutilak: Udarregi 6C-Urnieta 6B
10:30 Alebin mutilak: Udarregi 6A-Udarregi 6B
11:30 Infantil neskek: Udarregi B Usurbil-Leizaran B
12:45 Infantil mutilak: Udarregi Usurbil-Leizaran A
15:15 Kadete neskek: Usurbil K.E. "A"-Zuazo
17:00 Jubenil neskek: Usurbil K.E.-Zuazo

Martxoak 8, igandea

10:45 Kadete neskek: Usurbil K.E. "B"-Urnieta Kamox PM
12:00 Alebin neskek (7): Usurbil K.E. "A"-Usurbil K.E. "B"

Eskubaloiko errifa zozketa

7.424 izan da Usurbil Kirol Elkartek antolaturiko zozketako zenbaki saritua. Errifaren jabeak, Iruin sagardotegian 2 lagunentzako afaria irabazi du.



Giro ederra kantuzaleen topaketan

Larunbateko kantu-jira berezia izan zen. Gasteiz aldetik etorritako lagunekin aritu ziren Usurbilgo Kantu Taldekoak. Kantu zaleen topaketa eguerdian hasi zen, gero Saizarren bazkari baten bueltan jarraitu zuen topaketak. Argazkia: Zaloe Arnaiz.

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@eurkai.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

GERAR
BARNEALDEKO PINTURAK
PAPERZTATU, LISOAK...
USURBIL 630 70 20 10

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Neska eta emakume bat bilatzen da pisua konpartitzeko. 250 euro + gas-tuak. Kale Nagusia. 606642161

Usurbilen edo inguruan eraikigarria den lur eremua erosiko nuke. 636393237

Pisua salgai, Artzabalen. 3 logela, 2 komun, terraza eta trastelekua (altrizariek) eta garajea (2 kotxerentzat). 657 771 126

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldia, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 222.000 euro. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldia. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1.Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuanean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukeraz ezin hobea. Inaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an gutzitz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldia egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldia, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

(216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldia eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuanean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu bat alokairuan, 3 logela, bi komuna, jangela, saloia, sukaldia, dena kanpora, garajea eta trasteroa. San Inazio kalea. 696122533 Josune

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

Hiru gelako pisu bat alokagai Erdialdean. Igogailuarekin, gutzitz kanpokaldera. 630 713 583.

2 logela alokatzen dira kontratu eta errodarekin, Usurbilen. 631 411 867.

Bikote gaztea, gela bat edo biko pisu bila. Nominak ditugu, maskotarik ez. 686 056 040 (Mariano).

Pisu bat, 3 logela, bi komun, jangela, saloia, sukaldia, dena kanpora begira, garajea (marra) eta trasteroa San Inazio kalean. 699421239 Jesus

Gela baten bila nabil, partekatutako pisu batean. Tel. 619 817 460.

Lasarte edo Usurbil aldean pisua partekatzeko pertsona baten bila nabil. Prezio ekonomikoa! 646305465

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Pisu berria 100 metro koadro. Egoera ezin hobea. Pertsona bat edo pertsona bat uimearekin. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

Santuanean, diseinu polita eta berritua. 570 euro. 2 logela, 2 hilabeteko fiantza. 667438145

Santuanean, diseinu polita eta berritua. 600 euro. 2 hilabeteko fiantza. txangu68@hotmail.com

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukaldia, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Kotxe bat erosiko nuke. Seat Ibiza edo Opel Astra bat. 4.000 / 5.000 euro artean. 687 348 223.

Kawasaki Vulcan 500eko motorra duena salgai. Prezio onean. 667 055 553

Garaje bat alokatzen da, Zubiaurreena 10ean. Tel. 620 024 663.

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen da. 943361235

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

Garaje itxia salgai. 20 m karratuko. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Lan bila nabil. Orduka, etxeak garbitzen, umeak eta adineko pertsonak zaintzen. Tel. 602 073 446.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Herriko emakume euskaldun bat, oso informe onekin, goizean 8:00-10:00, helduak eguneko zentzura edo haurrak ikastolara eramateko eskaintzen da. 687348223.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Neska bat eskaintzen da interna moduan lan egiteko, pertsona helduak zaintzen. Txosten eta agiririk. Tel. 622 487 879.

Lan bila nabil. Garbiketan, plantatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egin eta umeak eta helduak zaintzeko. Feli-gatik galdetu. 620 625 823.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduko edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketarako. Irailatik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titularekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta paperekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil, pertsona helduak, umeak, etab... zaintzeko. Esperientzia, tabernan, sukalde laguntzaile, garbiketan... 622 487 879.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezela, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta paperekin egunean. Tel. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak



Zorionak Printzesa! 8an, 7 urte beteko dituzu. Ondo ondo pasa eta muxu pila bat zuretzako etxeokoen partez.



Zorionak Irati! Martxoaren 2an 3 urte bete dituzu. Earki ospatu zenuen eh! Txokolatzeko muxu potolo bat etxeokoen partez.



Zorionak Nahia! Martxoaren 3an lau urte betetzen dituzulako, zorionak. Etxekoan partez muxu asko.



Zorionak Jon eta Iera! Martxoaren 7an eta 11n zuen urtebetetzea izango da. Ondo ondo pasa zuen egunak eta muxu asko asko denon partez.



Zorionak!! Zorionak Julens Imami zuen 10. urtebetetzeagatik, muxuak Laukote!

duak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile titularekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziakin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziakin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziakin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziakin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketara eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrak emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titularekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketara edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarako egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurrepegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat

eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrak ematen ditut, L.H-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsoneri erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsalde. Irakaskuntza gradua bukatzeaz eta aisialdi talde batean bigarale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goiz zein arratsalde. Irakaskuntzan diplomaduna. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldetan, garbiketara. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketara eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikula-

rrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingeneriatza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Preziosa adostuko da: 684092731

BESTELAKOAK

Usurbil, Zubieta edo inguruan, 15.000 m lur saila alokatuko nuke azienda jartzeko. Enara: 647 438 895

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Sofa-ohet bat salgai. 70 euro. 655 731 915.

Etxean genituen bi kanario falta zaizkigu. Aurkitzen badituzue, deitu: 943 36 55 74 (Regina).

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688888176. Pablo.

Trona bat JANE markakoa salgai. Berri berria. Urdina marrazkiekin. Tel. 666 373 665.

Mutil gazte bat prest dago, rotatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Aurtengo eta hemengo baba-rrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuek... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbeteetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutezi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak Martxoak 05-martxoak 15

Osteguna 05 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 06 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

Larunbata 07 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 08 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Astlehena 09 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 10 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 11 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Osteguna 12 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 13 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 14 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 15 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30etara

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87 22:00 - 09:00

Agenda martxo

06 ostirala

- **Emakumeen Eguna: tailer-hitzaldia,** Yolanda Arrietarekin. 19:00 - 20:30 Sutegiko udal liburutegian.

07 larunbata

- **EHBilduk deituriko mintegia.** 10:00etan Udarregi Ikastolan.
- **Dj Gaua Akerra gaztetxean.** 00:00.

08 igandea

- **Andatzakoen irteera: Gorriti-Tolosa.** Izena alde zuretik eman behar zen.
- **Emakumeen Eguna.** Elkarretaratzea 12:30ean Mikel Laboa plazan, eta dokumental estreinaldia 18:00etan Sutegin.

Gaztetxearekiko elkartasun eguna, ostiralean Lasarten

Usurbilgo Gaztetxearen aldeko mahai ingurua eta kontzertu gaua antolatuta dituzte Lasarte-Oriako Elebeltz gunean, ostiral honetarako. Hilabete honetarako ekitaldi gehiago deitu ditu Usurbilgo Gaztetxeak:

Martxoak 6, ostirala

Usurbilgo Gaztetxearekiko elkartasun eguna, Lasarteko Elebeltz gune askean: 19:00 Okupazioaren inguruko mahai-ingurua. Partaideak: Donostiako okupazio bulegokoak, Usurbil eta Lasarteko gaztetxeetako kideak. Ondoren, afari pikoteoa, borondatearen truke. Gauean, kontzertuak: Kezka, Desegin (Usurbilgo taldeak), Perlak (Zarautz) eta Crazy Men (Paris).

Martxoak 12, osteguna

20:30 Afari beganoa, borondatearen truke. Falafela, marmitakoa, salda beroa. Ondoren,



Desegin taldekoak arituko dira Lasarte-Oriako Elebeltz gune askean.

Imanol Epelderen "Etxepare Rap" emanaldia.

Martxoak 14, larunbata

00:00 Kontzertu gaua Usurbilgo Gaztetxean: Kezka (Usurbilgo talde berria) eta Malta (Zarautz).

Jose Luis Otamendiren errezitaldia Potxoenean

Kapital publikoa (Susa) liburuarekin errezitaldi ugari eskaini ditu Azpeitiko poetak. Ostegun honetan, martxoak 5, gure artean izango da. 19:30etik aurrera Potxoenean, eta sarrera doan da.

Pagazpeko pilotariak bi final jokatu dituzte

Martxoak 6 ostirala, 20:30, Arrasate

Nagusiak Ohorezko Mailan:

Aurrera Saiaz-Pagazpe (X. Santxo-A.Gorrotxategi)

Martxoak 8 igandea, 11:30 Hernani. Kadeteak:

Oberena-Pagazpe (H. Exposito-A. Aranguren)

Datozenak

Dj gaua larunbatean, Akerra Gaztetxean

Hiru DJ saio antolatuta dituzte Txokoaldeko Akerra Gaztetxean, larunbat honetan, martxoak 7. Gauerdik aurrera: DJ Rubio, DJ Txoni eta DJ Julen.

Martxoaren 22an iritsiko da Korrika

Lekuko hartzea eguerdiko 13:30ean izango da, Lasartetik Zubieko hipodromora doan zubitik. Ibilbide hauxe osatuko du ondoren:

- Zubieta: alderik alde zeharkatuko du Santueneko zubiraino.

- Usurbil: Santueneko zubitik Atallu industriagunera. Bizkarretik Kalezarretik. Kalezarretik, Bordatxo aurreko errotondara. Eta handik behera, Zubiaurrenea kaletik Kale Nagusira. Kale Nagusitik San Inazio errotondara. N-634 errepidean sartuko da gero, 19. Korrika, Aginaga alderantz.

- Aginaga: N-634 errepidetik Mapil pareraino jarraituko du 19. Korrikak. Errepidetik atera gabe. Mapilen, 14:35ean oriotarrek hartuko dute lekukoa.



Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Pinturas Ion
KANPOALDEKO FATXADAK ETA BARNEALDEAK (PISUAK, LOKALAK...)
ENPRESETAKO MANTENIMENDUAK
690 99 05 58
ionf81@hotmail.com

ELORZA
O BRAK ETA
ERREFORMAK S. L.
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Unibertsitatea,
inguruko gizartearekin
inplikatzea ere bada.

erronkarako #prest



PREST



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOIERRI · MARTXOAK 14

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · APIRILAK 16

Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI · MARTXOAK 14

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BIDASOA · MARTXOAK 28

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA**

ESKORATZA · MARTXOAK 7

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · MARTXOAK 7

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MARTXOAK 21

Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



Aner Urruzuno,

Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza,
2. maila.

URDAIRA



Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 3ra
TXOTX-GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa

Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

📞 943 36 12 29



Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak

Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL

www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com

ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 📞 943 55 69 81



SAIZAR

Sagardotegia

Kale-zahar auzoa, 39

USURBIL

Sagardotegiko erreserbak:

943 37 39 95

(Igande gaua eta astelehen eguerdia itxita)

www.sidrassaizar.com

SAGARDOTEGIA

aginaga

Hotela **

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIKI!

ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA



943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!



%100 bertako sagarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea